




TARRARRA

HIK
TEATROA

A TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA



**SGAEren I Ana
Diosdado antzerki
lehiaketaren irabazlea
2019an.
Josi Alvarado
alikantearrak idatzia.**

SanFran, Bilbo, 70eko hamarkadan: kolore guztiak, maitasuna eta izua esnatzen dira gauez hango kaleetan. Bertan bizi dira alabarik gabeko ama, amarik gabeko alaba eta amarena egiten duen prostituta. Auzoan ezer ez da berdina izan hirurek topo egin zutenetik.

**ESTREINALDIA,
2022KO URTARRILAREN
15ean, LEKUONA
(ERREENTERIA)**

Thriller bokazioz jaio ondoren poesiaren dardarak astindutako testua. Inoiz kontatu gabeko hainbat eta hainbat umeren historia da Tarara; erraietarainoko bidaia iniziatikoa, adikzio-sortzailea. Barkamenari buruzko ipuina ere bada, desberdintasunari kantatua, Txanogorritxuk otsoei biolina jotzea lortzen duenean.

Testua lehen aldiz irakurri nuenean, erabateko sentsazioa izan nuen, testu handi baten aurrean nengoela. Sentsibiltate eta hitzen dotorezia ikaragarriarekin idatzia zegoela pentsatu nuen. Pertsonaia bakoitzaren bihotzeraino iristeko modu isila eskaintzen zuen testuak, eta nik isiltasuna da gehien maite dudana musika, idatziaz gain, notartean irakurri eta haratago ikusteko aukera ematen duena. Eta TARARAREN testuak aukera ematen du horretarako, isiltasunez osatutako pasarteen arteko emozio guzti horien artean ere musika entzuteko. Berez, horixe eskatzen diot antzerki testu bati, idatzita dagoenaz gain, ibaia itsaroraino iristen den moduan, askoz gehiago kontatzeko gauza izatea. Itsasoa bera zuzendu nahiko nukeelako beti.

Gutxitan gertatzen den gauza da gainera, testua norberak idatzia ez denean norberarena den zerbait antzematea edo norberarena bailitzan sentitzea. Eta nik nolabait sentitu egin nuen. Arantxa Iturbek eta biok urteetan idatzi ditugun testuen poetikaren antzeko musika entzun nuelako agian? Lorcaren lirismoa aipatzen du Josi Alvaradok erreferente izan zuela idaztean eta guk 2016an Koaderno Zuri idatzi genuen, Lorcaren Bernalda Alba buruan. Egileak dio ere, Almodovarren teknikolorra izan duela erreferente, eta nik aitortzen dut umetako herriko, auzoko dendari emakume gazte eta lotsagabearen irudia eta hitz egiteko modua etorri zitzaizkidala gogora Yasmín irakurtzean. Neure umetako lotsak eta beldurrak Rosaren pertsonaia harekin protestaka entzutean.

Testua irakurri ondoren ezagutu nuen Josi Alvarado, egilea. Ezagutu nuen eta pentsatu nuen badirela pertsona batzuk hitz egiten dutenean gauzak esaten dituztenak. Josi

horietako bat da. Gizartea entzunez bizi da eta bertatik lapurtzen ditu istorioak. Egiari lotuta idazten du.

LA TARARA/ TARARARI egia dario. Garai bateko, 70. hamarkadako Espainiako (euskal bertsiotan, BILBO) erretratu soziala da. Thriller poetikoa. Barkamenari, adiskidetasunari eta amatasunari kantua. Musika duen testua da, tarteka herrikoia, tarteka orkestra handiekin osatutako kontzertu handietakoa. Iluna da testua, eta aldi berean freskoa eta zuzena. Hitz gutxitan: geure historiari lotutako istorio handia.

Agurtzane Intxaurreaga



*Tararak praka batzuk ditu,
goitik behera dena
galtzontzilo direnak.
Tararak galtzontzilo batzuk ditu,
goitik behera dena
errezel direnak.
Tararak piku bat dauka ipurdian.
Joan zaitezte, mutilak,
jada heldu da eta.
Tararak soineko beltz bat du,
tanto zuriduna,
ehorzetetarako.
Tararak soineko zuri bat du,
tanto beltzez,
ostegun santurako.*



Sinopsia

SanFran auzoan hazi da Rosa, biolin jotzaile gaztetxoa, Liszt eta zendutako beste hainbat musika-egile ikusteko ahalmena duena. Tarara, gaueko lanetan aritzen den emakume prostituta, du lagun mamuen aurkako borrokan.

Rosa heldua eta Rosa neskatoa txandakatuz doaz susmo hutsa den sekretuen inguruan hegan dabilzan oroitzapenen joan-etorrian.

Tiradera batean agertutako maitasun karta batzuei esker azaleratuko da musikaz eta edertasunez betetako umearen memoria hautsia, ordura arte izuari zirrikiturik utzi gabea.

(Hitzaurre modura, honela hasten da Tarararen liburua)

2018ko uztailaren 18an Osasunaren mundu erakundeak onartu zuen, azkenean, Tarara ez zegoela zoratuta. Sexu batetik bestera, helmuga zehatzez edo gabe doazen edo dauden milaka pertsonak ez dutela gaitzik edo desorekarik. Beti izan direla tararak, Jainkoak amorrarazi eta bi sexu eta bi mundu eta bi sugeren artean bedeinkatua izan zen Tiresiasen garaitik. Tiresias askoren istoriotako bat da hau. Hizkuntzaz hizkuntza eta kantuz kantu ibili, txikienen txistuak jaso eta zaharrenek madarikazioen artean ibili eta gauaren eta honen ezpaten artean alderrai ibiltzera zigortutako Tiresiasena.

“Onartu beharra daukat Tararak asko zor diola San Federico (Garcia Lorcati) eta San Pedro (Almodovarren). Bien bedeinkazioa du amets, baten lirismo surrealista eta bestearen pasio teknikolorra tarteko. Almodovarren arrastoa dario DESIOA, anitza, horrela, hitz larriz adierazteko behar ekidinezinean. Eta Lorcarenetik jasoak ditu atmosfera iragarle eta itogarria, arnas poetikoa eta misterioa”.

Josi Alvarado.

Testuko pasarte pareia

(...)

YASMÍN: Sekretu bat ikusi nahi?

ROSA: Zer sekretu?

YASMÍN: Ipuin baten hasiera

ROSA: Ipuin bat idazten ari al zara?

YASMÍN: Zer esaten ari zara, zoroa? Printzesen istorio baten hasiera da, baina ez dut nik idatzi.

ROSA: Nork idatzi du ba?

YASMÍN: Inork ez. Berekasa idazten da. Zu panpinekin jolasean ari zarenean bezalatsu. Pixkanaka asmatzen duzu. Norberak ere asma dezake bere istorioa. Panpina balitz bezala.

ROSA: Ez dizut ondo ulertzen.

YASMÍN: Begira. Ikusten mutiko polit hau?

ROSA: Zer da hau?

YASMÍN: Eskolako kartilla, ez al duzu ikusten? Iraganetik geratzen zaidan gauza bakarra: hau eta amaren oinetako hauek.

ROSA: Eta nor da ... Manuel Saborido Sanchez?

YASMÍN: Ni naiz. Nire istorioko panpina.

(...)

(BILBO, 1992, ZAHAR-EGOITZAN)

ROSA: Ama. Esan didate lanpara bota diozula madame Reveloti.

TELMA: Eta esan al dizute eman ote diodan?

ROSA: Mesanotxea ere bota omen diozu.

TELMA: Horrekin errazagoa da asmatzea.

ROSA: Ama, mesedez

TELMA: Ohituta dago kolpeak hartzen. Ez al zara konturatu indiarra dela?

ROSA: Min bat zara. Kronikoa.

TELMA: Eta zu mukizu bat.



BEHARREZKO ISTORIO BAT

SGAEren I. Ana Diosdado saria.

Euskarara Arantxa Iturbe idazleak ekarria.

Thriller poetikoa.

Barkamenari buruzko ipuin bat.

Desberdintasunari kantatua.

Memoria historikoa jasotzen duen errelatoa: San Francisco auzoa.
Bilbo, 70eko hamarkada.

Garcia Lorcaren lirikotasuna eta Almodovarren pasio teknikolorra
biltzen dituen testua.

Eskarmentu luzeko taldea elkarlanean.

Musika zuzenean: Paganiniren *24 kapritxoak* eta *La Llorona*, *Las Panaderas* tarteko.

Ikerne Gimenezen eszenografia eta jantzitegia
Kabaret munduko artisten parte hartzearekin.



TALDE ARTISTIKOA

Josi Alvarado. Egilea

Itzulpengintzan eta Kazetaritzan lizentziaduna Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. Bertan ezagutuko du antzerkiaren pozoia 90eko hamarkadan. Sei urtez kazetaritzan lan egin ondoren, irakaskuntzara pasatzea erabakiko du, eta harrez geroztik, Bigarren Hezkuntzako ingeleseko irakasle eta Alacanteko Unibertsitateko irakasle da. Irakasle lana hizkuntzalari eta antzerkigile lanekin uztartuko du. Dramaturgoa gisa, umorearen, oroimenaren eta zatikatuaren lirikaren eremuak zeharkatuko ditu. Porrotaren poetika. Beren lehen obra, *Fulanas*, Egile Garaikideen XXIII. Antzerki Mostran parte hartzeko hautatua izango da. *Anda Jaleo antzezlanak*, *Fulanas*-en mikro bertsoak, Espainiako gerra zibilean emakumeen memoria berreskuratuko du. *Anda Jaleo* Alacanteko lurpeko antiaereoaren babeslekuetan antzeztuko da sei hilabetez eta arrakasta handia lortuko du (2017-18).


2018an, Alzheimerre bezalako tragedia batetik abiatuta umorea egiteko erronkari ekingo dio, *Maldita Rita Hayworth* lanarekin. *Maldita Rita Hayworth* Valenziako IVAC Kultura Institutuak bultzatutako Valentziar Dramaturgiaren III Torneurako aukeratua izango da. *Fum*, publikatuko duen lehen obra, Gil Albert Institutuak argitaratuko du. *Fum* eleberri beltzaren eta tabakoaren usaina duen zeharkaldia da, puzzle hautsi bat, ebatzi gabeko krimen bat, Alacanteko andre zigarrogle mitikoen amorrua, ametsak eta borroka berreskuratzen dituena.

El Manual de la Señora de la Limpieza eszenen patcwork bat da: emakume etorkinak, biziraupena, alkoholismoa, gorroto garaietako adiskidetasunak. Testuak Espainiako behe-klasea den sagutegia bisturi garratzarekin disezionatzen du. *El Manual*, Lucia Berlin idazleari omenaldi bat da, eta 2019an Castelló Hirikok 25. Antzerki Saria jasoko du. 2020ko irailan argitaratuko da.

La Tarara bere azken testuak I Ana Diosdado Antzerki Saria jasoko du.

Gaur egun biran dabil *Las Furias (y que vivan las Trágicas)* lana. La Sogorb konpainiaren komedia honek Tragedia Grecolatinako emakumezko pertsonaiak berrikusten ditu Me Too-ren garaian.





Arantxa Iturbe. Euskarara itzulpena

Informazio Zientzietan lizentziaduna (EHU, 1988), 2003tik *Arratsean*, Euskadi Irratiko saio kulturala zuzendu eta aurkezten du. Irratian egiten duen lana, literaturan eta antzerkian egiten duen lanarekin uztartzen du. Idatzi dituen liburuen artean, nabarmenekoak dira: *Honetara ezker* (SUSA, 2017), *Koaderno Zuri* (Elkar, 2017), *Kontu jaten* (Alberdania, 2006), edo *Ezer baino lehen* (Elkar, 1992).

Hainbat testu egokituko ditu antzerkirako. Besteak beste, *Ai Ama!*, Agurtzane Intxaurrearekin lau eskutara. HIKAK 2002an ekoiztutako lan honek, Max 2003 saria jaso zuen euskarazko lan onenari. Halaber, Intxaurrearekin batera *Seda* (2004), *X* (2004) eta *Aitarekin Bidaian* (2020) testuen egokitzapenak egingo ditu. Azken biak Max saria jasoko dute euskarazko lan onenari. 2010ean Suzanne Lebeauren *El ogrito* euskarara ekarriko du, Gorakada konpainiarentzat. Eta 2011an gauza bera egingo du Tanttaka-rentzat Ipar haizearen kontra testuarekin. *Koaderno Zuri* (2016), *Tarara* arte, HIKA Teatroarentzat Intxaurrearekin batera sortuko duen azken antzezlan da.

Agurtzane Intxaurrea. Zuzendaria

Emakume bizkaitarra (Orozkon jaio eta haziko da) eta antzerkigile donostiarra (34 urte lanbidean).

Informazio Zientzietan lizentziaduna (EHU, 1992). Gaur egun Kultur Kudeaketako Masterra egiten ari da (UOC).

Desagertutako Eusko Jaurlaritzako Arte Dramatikoko Zerbitzuan (Antzerki, 1989) aktore gisa trebatu zen. Harrezkeroztik, arte eszenikoen, telebistaren eta zinemaren inguruan biziko da, modu berezizinean aktore, dramaturgo edo zuzendari gisa lan eginez.

Baina eszenatokia da bere pasioa. HIKA Teatroak, berak sortutako eta egun zuzentzen duen konpainiak, arte hau bere ofizio bilakatu du. *Tonbola*, *Txarriboda*, *Koaderno Zuri*, *Hitzak*, *Aitarekin bidaian* edo *Sagartu* dira HIKA Teatroan sortu eta zuzenduko dituen lan batzuk.

Halaber, erakunde publiko eta entitate pribatuentzat hainbat ekintza eta ekitaldi ekoiztu eta zuzenduko ditu: *Gernika margolana*, *garrasi lazgarria*, *bakearen ikur*, Sabino Arana sariak 2017; *Trenak ekarri*, *gerrak eraman*, Gipuzkoako Foru Aldundia (2016); *Time Machine Soup*, Donostia 2016; *Afrika*, Olatu Talka 2018, Donostia Kultura.

Beste konpainia batzuentzat ere lan egingo: *Agurra* (2021), Vidania Teatro; *Letter* (2016) eta *Txatarra* (2015), Malas Compañías; *Yo soy ellas* (2016), *Rojo Telón*, esaterako.

2016an animaziozko bere lehen luzemetraia zuzenduko du: *Teresa eta Galtzagorri* (Dibulitoon Studio). Urte horretan bertan filma, Goya sarietarako izendatua izango da.

Isiltasuna da bere doinurik gogokoena.

Ikerne Giménez. Eszenografia eta jantzitegia

Eszenografian lizentziaduna Madrilgo RESAD-en (Real Escuela Superior de Arte Dramático). Besteak beste, honako zuzendari hauekin egingo du lan, jantzitegi eta eszenografian: Will Keen, Iñaki Rikarte, Carles Alfaro, Alfredo Sanzol, Miguel Arco. Ekoizpen pribatu eta publikoetan ere parte hartuko du: Centro Dramático Nacional, Teatro Español edo Compañía Nacional de Teatro Clásico adibide.

ADEren Figurinismoko Adriá Gual saria jasoko du *Avaricia, lujuria y muerte* (CDN 2009) lanagatik. Eta 2010ean diseinu lan beragatik figurinista onenari MAX saria emango diote. Bere azken lanen artean honako hauek nabarmendu daitezke: *Tiempo de silencio* antzezlaren eszenografia eta jantzitegia (Teatro de la Abadía); *El desdén con el desdén* obraren jantzitegiaren diseinua (Iñaki Rikarte Compañía Nacional de Teatro Clásico-rentzat), edo KULUNKAREN *Quitamiedos* lanaren eszenografia eta jantzitegia.

Oraindik orain *Sisiforen Paperak* obraren jantzitegia eta eszenografia diseinatu ditu (CDN & Arriaga Antzokia). Gaur egun, ECAM Madrilgo Zinema eta Ikus-entzuneskoen Eskolan irakaslea da eta Marie de Jongh konpainiaren hurrengo ekoizpenaren eszenografian lanean dihardu.



INTÉRPRETES

Tania Fornieles. Rosa 1 (Alaba)

Interpretaziorako bere pasioa oso gaztetatik hasi zen, antzezlanetan parte hartzeko aukerarik ez zuen garaietan; baina sekula ez dio bere ametsa lortzeko bidea egiteari utzi.

Irakaskuntza ikasketak amaituta, eta nolabaiteko independentzia lortuta, buru belarri jarri zen aipaturiko bide horretan.

Lehenik, William Layton laborategian arte dramatikoko diploma lortuz; ondoren, Arnold Taraborrelliren gorputz mugimendu eskolan bere formakuntzarekin jarraituz, eta Contxa Doñaquerekin ahotsa eta dikzioan entrenatuz.

Harrez geroztik, hainbat antzezlanetan eta mikro antzezlanetan parte hartu du, esaterako, *Mi último baile*, Pabelloi 6ek ekoitzia eta Ramon Bareak zuzendua; *Izoztutako haizea bezala*, Tanttaka Teatroak ekoitzia. Lan honekin estatu mailako errebelazio aktore onenaren izendapena jaso zuen (Ercilla saria 2019); Vaiven konpainiaren *Treblinkara azken tren*a antzezlanea, lau urtetan 200 emanaldi baino gehiagorekin.

Ikusi entzunezkoei dagokionez, teleaio ezberdinetan parte hartu du, esaterako ‘Goenkale’, eta ‘Movistar’ kateko ‘Paraiso’-n. Baita laburmetraia eta web serietan ere.

Jurdana Ochoa. Rosa 2 (Biolinista)

1999an amaitu zituen biolineko erdi mailako ikasketak. Orduz geroztik sormen proiektu oso ezberdinetan parte hartuko du: 1999 eta 2000 urteetan Euskal Herriko Gazte Orkestran hasi zenetik, musika klasikoa, garaikidea edota folk eta rock talde ezberdinetan aritu da. Iñaki Salvador, Jabier Muguruza, Mixel Etxekopart, Niko Etxart, Petti, Joxan Goikoetxea, Pierre Paul Berzaize, Oreka Tx edo Brigantha bezalako musikari eta taldeekin izan da taulagainean, besteak beste. Gaur egun Lazkao eta Lezoko musika eskoletako biolin irakaslea izateaz gain, Et Incarnatus kamara orkestrako kidea da, baita Anonimuss laukotekoa ere. Azkenaldian Hertzainak taldearen azken giran, *Urmuga mendiak eta musika* festibalean edo Txomin Artolaren azken diskan parte hartu du.

Arte Eszenikoetan ere ibilbidea egina du: *Mephisto* antzezlanea, Ainhoa Alberdiren *Zapatak*, Maiteka ikuskizuna, *Andrezaharraren manifestua*. Bere azken proiektuen artean, Idoia Hernández `HATXE`pianista eta konpositorearen bigarren lana aipatu daiteke. Bideoklipa eta diskaren grabaketan parte hartu duelarik.

Kepa Errasti. Yasmin (Tarara)

Informazio Zientzietan lizentziaduna (EHU, 2003), 2007an TAE Donostian aktore ikasketak amaituko ditu. 2005ean *Goenkalen* lanean hasiko da eta, orduetik, ez da geldituko, antzerkian, zineman eta telebistan aktore eta gidoilari lanak tartekatuz. Antzerkian egindako aktore lanen artean honako hauek nabarmendu daitezke: *Sisiforen paperak* (2020); *Fadoak entzuten zituen gizona* (2020); *Mami Lebrun* (2016); *Treblinkara azken tren*a (2016), edo HIKA Teatroaren *Txarriboda* (2017). Zineman, besteak beste, pelikula hauetan egin du lan: *Loreak* (2014); *Lasa eta Zabala* (2014), edo *Bucle* (2010).

Mami Lebrun ekoizpenean egindako lanagatik Besarkada Saria (EAB) jasoko du. 2019an Azpeitiko Antzerki Topaketetan Ikusleen Saria jasoko du *Lur* antzezlanagatik, eta 2018an Donostia Antzerki Saria emango diote *Mami Lebrun* antzezlanagatik.

Itziar Ituño & Eneritz Artetxe. (pertsonaia partekatuko dute). Telma (Ama)

Itziar Ituño. Hiri Soziologia-Industrial eta Politikoan lizentziaduna EHUn. Interpretazioa ikasiko du Basauriko Antzerki Eskolan (1995). Harrezkeroztik, bere aktore ibilbidea geldiezina izango da: telebistan *Goenkale* telesailean (1999) egindako lana nabarmendu daiteke, Nekane Beitia pertsonaia interpretatzen. Nazioarteko ospera jauzia Atresmediak lehenengo eta Netflixek beranduago ekoiztutako *La casa de papel* telesaيلaren eskutik egingo du. Polizia baten papera eginez hemen ere: Murillo inspektorea.

Zineman, besteak beste, honako pelikula hauetan egingo du lan: *Loreak* (2013), Jose Mari Goenaga eta Jon Garaño; *Lasa eta Zabala* (2014), Pablo Malo; *Hil Kanpaiak* (2020), Imanol Rayo. Antzerkian HIKAren hainbat ekoizpenetan parte hartuko du: *Zeta* (2005); *Hitzak* (2015) – Garnacha de Haroko Antzerki Lehiaketa Nazionalean aktore protagonista onenari Saria-, edo *Koaderno*a *Zuri* (2016). Antzezpen lanak musikarekin uztartuko ditu, Dangiliske, EZ3 eta INGOT taldeetako abeslari moduan.

Eneritz Artetxe Aranazek Haur Hezkuntza, musika eta antzerki ikasketak biltzen ditu bere baitan. Basauriko antzerki eskolako formakuntza bukatu ondoren antzerki fisikoa ikastera joan zen Philippe Gaulier maisuarekin Londresera. Eneritzek hainbat antzerki talderekin egin izan du lan eta lau denboraldiz jokatu zuen Julia Bilabaoren rola *Goenkale* telesailean. Antzerki pedagogo gisa zentro, unibertsitate, antzerki eskola eta antzerki talde ezberdinetan eman ditu eskolak.

Duela zazpi urte Eneritzek *Dxusturi teatroa* proiektua sortu zuen eta harekin bi bakarrizketa eraman ditu taula gainera: *Konpota* eta *Karramarroa*. Horrez gain, azken urteotan testu ezberdinak ere argitaratu ditu: *Emakume eta gizonen presentzia euskarazko antzerki sorkuntzan E.J.*, (2019), *Karanbola hirukoitza* EHAZE, (2020) eta *Isiltasuna SUSAEHAZE*, (2020). Gaur egun Eneritzek antzerki pedagogian jarraitzen du lanean eta *Lakoste* bakarrizketaren sormen prozesuan murgilduta dago.

Adrián García de los Ojos. (Musikaria & Narratzailea)

Zazpi urterekin hasiko ditu piano eta txistu ikasketak. 2012an Arte Eszenikoen ikasketak amaituko ditu BAI Antzerki Eskolan. Honi esker, berak sortutako piezak erakutsi ahal izango ditu nazioarteko antzerki jaialditan: Bilbo (ACT), Birmingham (BE), eta Amsterdam (Its).

Konpositore gisa, hainbat antzerki lanentzat musika sortuko du: Patxo Telleriaren *Sinplícissimus*; Jokin Oregik zuzendutako *Ikimilikilik* eta *Ama*; Itziar Lazkanoren *La casa de Bernarda Alba*; Unai Izquierdok sortutako *Náufragos*, edo Ramón Bareak zuzendutako *Ay! Carmela*, beste batzuen artean. Zineman ere lan egin du. Aipagarria da Ana Murugarrenek zuzendutako *La Higuera de los Bastardos* filmearentzat sortutako soinu banda. Eszena aktore eta pianista gisa zapaldu ohi du maiz. Nabarmenak dira, besteak beste, Ramón Bareak zuzendutako *El viaje a ninguna parte*; Patxo Telleriaren *Ez dok 3*, edo María Goircelayak zuzendutako *Lyceum club*. Panpinen manipulazioan Emmanuel Márquez zuzendutako *Altzoko Haundia* operan edo Getari Etxegaraik sortutako *Vuela Bruna* antzezlanean aritu da, beste ekoizpen batzuen artean.

Telebistan *Goenkalen* egin du lan, Iratxe Mediavillaren *Argi* pelikulan, eta *Homoamak*, *Ziren* eta *Beta* film laburretan.

J.C. GURRUTXAGA. Gabriel (Guardia Zibila & Kristobal (Telmaren amorantea)

Hemezortzi urterekin hasiko da aktore lanetan eta, harrezkeroztik, ibilbide profesional oparoa eraikiko du antzerkian, telebistan eta bikoizketan.

Bere lorpenen artean, 2013an Gijongo Feten Antzerki Azokan eskuratutako Gizonezkoen Interpretazio Onenaren Saria nabarmentzen da, Gorakada konpainaren *Munduari Itzulia* lanagatik.

Antzerkiari dagokionez, mota guztietako ikuskizunetan parte hartu du, hala nola, *Antígona* edo *Eduardo II* bezalako klasikoetan, *Barealdi magikoa* edo *Metxa* bezalako komedietan, Zanga bezalako kale ikuskizunean, *Moby Dick* edo *Ulisesen Bidaia* bezalako ikuskizun familiarretan edo *Standup Comedy* moduko bakarrizketetan.

Egun Txalo konpainiaren *Ene ba!* komediarekin biran dabil.

FITXA ARTISTIKOA

EGILEA

Josi Alvarado

ITZULPENA EUSKARARA

Arantxa Iturbe

INTERPRETEAK

Tania Fornieles, Kepa Errasti, Jurdana Otxoa, Eneritz Artetxe, Jose Cruz Gurrutxaga, Adrián García de los Ojos &

Iñar Sastre

ZUZENDARITZA eta DRAMATURGIA

Agurtzane Intxaurreaga

ZUZENDARI LAGUNTZAILEA

Miren Gojenola

JANTZIEN ETA ESZENOGRAFIAREN DISEINUA

Ikerne Giménez

ESZENOGRAFIAREN ERREALIZAZIOA

Readest Decorados eta Sfumato Pintura Escénica

ESZENOGRAFIA LAGUNTZAILEA

María José Villela

JANTZIEN ERREALIZAZIOA

KKUM Inma Gómez

JANTZIEN GIROKETA LANA

Taller María Calderón

MUSIKA GIROA

Adrián García de los Ojos & Jurdana Otxoa

MUSIKA ZUZENEAN

Adrián García de los Ojos/ Iñar sastre & Jurdana Otxoa

ARGIAK

Xabier Lozano

GRAFIKA

Santos Bregaña. Laia

PROMOZIO BIDEOAK

Acrónica producciones

ARGAZKIAK

David Bernués & Dani Blanco

EKOIZPEN ZUZENDARITZA

HKA Teatroa

EKOIZPEN EXEKUTIBOA

HKA Teatroa

TALDE TEKNIKOA

Acrónica producciones

KOMUNIKAZIOA

Teresa Sala

ADMINISTRAZIOA

Asun Etxeberria

BANAKETA

HKA Teatroa (Teresa Sala)



HIKA

TEATROA

Aldapa kalea 14. Donostia. Gipuzkoa
T 633 252 200 - 656 792 501
hika@hikateatroa.eus
www.hikateatroa.eus

